

UZTARITZEKO AURREKONTU PARTIZIPATIBOAREN BARNE ARAUDIA

Lehen artikulua: printzipioa

Herriko kontseiluak bozkatu zuen Herritar Partehartzearen Gutuna dela-eta, Uztaritzeko herriak aurrekontu partizipiboarentzat izanen den urteko diru zenbateko bat txertatzea erabaki du bere aurrekontuan.

Aurrekontu partizipatiboaren helburua herritarren engaiamendua indartzea da. Kolektibitatearentzat eta osoki edo partzialki kolektibitateak finantzaturako interes orokorreko proiektuak gauzatzeko erabaketan herritarrei parte hartzeko aukera emanaz.

Bigarren artikulua: aurrekontu partizipatiboaren eremua

Herri proiektuak Uztaritzeko lur eremuan gauzatu behar dira, uztariztar guztien edo parte baten onerako.

Hirugarren artikulua: helburuak

- Herritarrei beraien beharrei dagozkien proiektuak proposatzeko aukera ematea.
- Herritarren partehartzea eta gizarte kohesioa laguntzea.
- Uztariztarrek beraien herriaren funtzionamendua hobeki ulertzea eta ekintza publikoaren eraginkortasuna bideratzea.

Laugarren artikulua: aurrekontu partizipatiboaren zenbatekoa

Proiektu deialdi bat abiatzea erabaki bezain laster, aurrekontu partizipatiboaren zenbatekoa aurreikuspenez herriko aurrekontuan txertatua da.

Bosgarren artikulua: aurrekontu partizipatiboaren egutegia

AURREKONTU PARTIZIPATIBOAREN PAUSOAK	GAUZATZE AURREIKUSPENA
Proietu deialdiaren hautagaitza txostenen pausatzea	Otsailaren 1etik Martxoaren 31ra
Proiektuen azterketa herritar partehartzearen COPIL-a eta zerbitzuen eskutik	Apirilaren 1etik Maiatzaren 31ra
Atxikiak diren proiektuen argitaratzea Herriko Etxearen webgunean	Ekainaren 1etik Ekainaren 30era
Uztariztarren bozka	Uztailaren 1etik Uztailaren 31ra
Aurrekontu partizipatiboa irabazi duten proiektuen gauzatzea	Abuztutik goiti

Seigarren artikulua: parte hartzeko ahalmena

- Elkarteek eta Auzoetako Komiteek proiektuak kolektiboki aurkeztu behar dituzte.

- Talde horien bizitokia Uztaritzen dela frogatu behar da.
- Proiektu bana aurkeztu daiteke gehienez.
- Egutegian zehaztutako epean, Herriko Etxean aurkeztu behar da proiektua.
- Seigarren artikulua ez errespetatzeak proiektuaren ez onartzea dakar. Aurkezleak ukoari buruzko informazioa ukanen du.

Zazpigarren artikulua: proiektuaren onargarritasun baldintzak

- Proiektuaren deialdirako epearen bitartean horretarako den inprimakia bete.
- Herriko lurretan kokatua izan.
- Interes orokorarentzat eta ondoko arlo horietako baten baitakoa izan: aldaketa klimatikoaren kontrako borroka, gune naturalen, biodibertsitatearen eta paisaien zainketa, kontsumo arduratsua eta zaborren kudeaketa, euskararen sustapena, kultura eta kirol arloetan giza betetasuna, elkartasuna eta giza kohesioa.
- Sorkuntza berria izan. Lehenago egin izan den edo egiteke, aztertzeke den proiekturik ez.
- Eraikitze kostu balioztatua aurrekontu partizipatiboaren zenbateko osoaren erdia baino apalagoa edo berdina izan.
- Helburu pribatu edo profesionalik ez.
- Eduki diskriminatzaile, sexista, arrazista eta gaitzerrailerik ez.
- Herriaren gaitasunekin bat egin.
- Inbertsio gastuak hunkitu lehentasunez. Bestalde, proiektuaren eraikuntza eta mantentzeak gehiegizko funtzionamendu gasturik ez ekartzea.
- Uztaritzen eramandako politika publiko desberdinekin bateragarria izan eta hirigintzaren kuadro legala errespetatu (PLU, araudiak).
- Ebaluaketa tekniko, juridiko eta finantzarena egin ahal izateko bezain zehatza izan (proiektuen aurrekontua zehatz-zehatza izan behar da)
- Gizartean eta ingurugiroarentzat onargarria izan.

Zortzigarren artikulua: proiektuaren txostenaren aurkezpena

Proiektuak aurkezteko inprimakia (papera edo desmaterializatua) herritarrentzat eskuragarri izanen da.

Taldeka urtean behin proiektu bakarra aurkeztu daiteke.

Proiektuak aurkeztu daitezke:

- Posta elektronikoen bitartez, inprimakian agertzen den helbidera idatziz.
- Paperean, Herriko Etxearen harrera bulegoan.

Bederatzigarren artikulua: proiektuen azterketaren pausoak

- Txostenak pausatzeko epea pasatua izanen delarik, herritarren partehartzearen COPIL-ak aurkeztutako proiektuen onargarritasunari buruzko erabakia hartuko du, interes orokorren arabera beti ere.
- COPIL-ak onargarritzat emandako proiektuek Herriko Etxearen zerbitzuen azterketa tekniko, juridiko eta finantza azterketa pasatuko dute. Zazpigarren artikulua irizpideekin bat datozen ikusiko da.
- Herritar partehartzearen COPIL-ak proiektuen baiespen definitiboa emanen-eta uztariztarrek bozkatuko dute.

- Herriko Etxeko zerbitzuek proiektuaren ebaluaketarako beharrezkoak diren informazioak proiektua aurkeztu dutenei galdeginen dizkie. Bien arteko elkarrizketa horien bitartean aldaketak gerta daitezke. Proiektua aurkeztu dutenen erantzunik ezean, proiektua baztertua izan daiteke.
- Proiektu desberdinen arteko lotura dela-eta, proiektugileen arteko elkarlana galdegin daiteke.
- Baztertuak izanen diren proiektuen egileei bazterketaren arrazoia jakinaraziko zaie (ez onargarria, onargarria bainan juridikoki, teknikoki edo finantza aldetik burutu ezina, ekintza munizipalean jadanik sartua...)
- Hautatutako proiektuak Herriko Etxearen komunikazio euskarri desberdinetan aurkeztuko dira.

Hamargarren artikulua: proiektuen bozketarako moldeak

- Uztaritzeko herritarrek egingarriak diren proiektuen artean bozkatuko dute, eginen diren proiektuak definitiboki hautatzeko.
- Bozketa elektronikoa izanen da, aurrekontu partizipatiboaren plataforma numerikoaren bitartez.
- Uztariztar orok, 16 urtetik goiti eta nazionalitate baldintzarik gabe, bozka bana ukanen du.
- Pertsona bakoitzeko, gehienez, bozka bana onartuko da hiru proiektuentzat.
- Bozken emaitza herriko kontseiluan jakinaraziko da.
- Bozken emaitzaren arabera zerrenda osatuko da. Abian den urteko aurrekontu partizipatiboari dagokion zenbatekoa agortu arte gauzatuko dira proiektuak. Herritar partehartzearen COPIL-ak baietsiko ditu proiektuak.
- Bozketan berdinketa baldin balitz, herritar partehartzearen COPLI-ak proiektu horien arteko zozketa eginen luke proiektuen aurkezleen presentzian.

Hamaikagarren artikulua: proiektuen gauzatzea

Herriko jabegoan aldaketak eragingo lituzkeen kasuan, uztaritzeko herriak proiektuaren kudeaketa eta gauzatzearen zainketa eginen lituzke.

Herriak proiektua lagundu dezake:

- Arlo teknikoan.
- Logistikan (materiala utzi, salak erabiltzea baimendu...).
- Finantza arloa dirulaguntzen bitartez.
- Proiektuari buruzko komunikazioa eginez herriko euskarri desberdinetan.
- Behar baldin balitz lan-esku bolondresa lortzeko deia zabaldu.

Herritar proiektuen inguruko komunikazio ekintzak burutuko dira.

Hamabigarren artikulua: proiektuen zainketa

Proiektua gauzatu eta gero, proiektugileak « bilan » inprimaki baten bitartez idatzizko bilan laburra egin beharko du derrigor.

Proiektua gauzatu eta hilabete bat geroago berantenez, proiektugileak gastuen frogak aurkeztu beharko ditu Herriko Etxean.

Proiektuaren gastuak Herriko Etxeak emandako dirua baino guttiago balira, proiektugileak soberakina itzultzeko ardura hartuko du gai publikoen zerbitzuak bidalitako zenbatekoaren abisua eskuratu bezain laster.

Barne araudi errespetatu ezean, emandako diruaren osotasuna edo zati bat itzuli beharko da.

Aurkeztutako proiektua gauzatu ezean, edo, diru erabilera bigabea eginez gero, tranpaz lortutako dirua berreskuratzeko salaketa juridikoak abiatu daitezke.